



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko uztailaren 1a

72. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00027. “Artikako Kontzejuaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00027. “Artikako Kontzejuaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 8an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Artikako Kontzejuaren kontu orokorra, 2024” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*ORRIALDEA*

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA	4
III. IRITZIA.....	4
III.1 Fiskalizazio finantzarioari buruzko iritzia	5
III.2 Legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia.....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA	5
IV.1. Finantza-iritzi salbuespendunaren oinarria	5
IV.2 Legezketasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK	6
VI. ARTIKAKO KONTZEJUAREN ERANTZUKIZUNA	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	7
1. GEHIGARRIA. KONTZEJUAREN 2024KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA.....	8
2. GEHIGARRIA. ARTIKAKO KONTZEJUA.....	12
2.1 Informazio orokorra	12
2.2 Egindako jarduerak	12
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	13
4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	14
4.1 Aurrekontu orokorra eta finantzen egoera.....	14
4.2. Langileria-gastuak.....	17
4.3. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	18
4.4. Inbertsioak.....	19
4.5 Transferentzia arruntetako gastuak.....	19
4.6 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.....	20
4.7 Transferentziengatiko diru-sarrerak	21
4.8. Ondare bidezko diru-sarrerak.....	22

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko urriaren 14an eginiko bilkuran, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioaren eskaerari jarraikiz, erabaki zuen “Artikako Kontzejuaren (Kontzejua, aurrerantzean) 2019tik 2023ra bitarteko kontuei eta langileen kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostena” eskatzea Kontuen Ganberari.

Eskaerari erantzuteko, Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin eta 2025erako fiskalizazio-programarekin bat etorriz, 2024ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du, baita, harekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa ere.

Landa-lana 2025eko abendutik otsailera bitartean egin du lantalde batek, kidetzat auditoretzako teknikari bat eta auditore bat zituena, eta laguntza jasorik Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboengandik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzen berri eman zitzairen Artikako Kontzejuaren arduradunei, alegazioak aurkez zitzaizten. Epea amaituta, ez da alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu Kontzejuko langileei lan hau egitean emandako laguntzagatik.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimorik ager ez dadin. Datuek zenbateko zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute, eta ez biribildutako datuen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean kalkulatuta daude, eta ez biribildutako balioen gainean.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lanaren helburua da gure iritzia ematea honako hauen inguruan:

- Ea Kontzejuaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrak, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duen 2024ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldian izan dituen emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, jarraiturik informazio finantzarioaren araudi indardunari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -irizpideei.
- Ea Kontzejuaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin, alderdi muntadun guztietan.

Fiskalizazioaren norainokoa Kontzejuaren kontu orokorra da. Honakoek osatzen dute kontu hori:

Legezkotasunaren betetzeari dagokionez, norainokoak barne hartzen ditu txosten honen 4. gehigarrian aipatzen diren laginetan berrikusitako eragiketak.

Halaber, Ganberak 2010-2012 aldiko ekitaldiei buruzko txostena egin zuen, eta bertan jasotako gomendioak eguneratu dira.

Fiskalizazioan azterturiko denbora-tartea 2024ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruz beharrezko egiaztapenak egin ditugu, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, bera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz, Artikako Kontzejuaren kontu orokorra fiskalizatu du, zeinak barne hartzen baititu, batez ere, 2024ko abenduaren 31ko egoera-balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua eta aurrekontu-likidazioaren espedientea.

Orobat, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioa ere egin du.

III.1 FISKALIZAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, gure txostenaren "Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako zertzeladaren efektuengatik izan ezik, kontu orokorrak irudi leiala erakusten du, alderdi esanguratsu guztietan, Kontzejuak 2024ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraiturik informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, hor jasotako kontabilitate- eta aurrekontu-arloko printzipio eta irizpideei.

III.2 LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO FISKALIZAZIO-IRITZIA

Gure ustez, gure txostenaren "Legezketasun-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria" atalean deskribatu ditugun gaien eraginengatik ez bada, eta egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Kontzejuaren 2024ko ekitaldiko kontu orokorrean islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioei legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioen gaineko ISSAI-ES 200 eta ISSAI-ES 400 arauetan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak erabili ditugu. Arau horien indarrez dugun erantzukizuna aurrerago deskribatzen da, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, kontu orokorraren eta legezketasun-betetzearen fiskalizazioari dagokienez.

Fiskalizatutako entitatearekiko independenteak gara, kontu orokorraren fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta legedi-betetzeari buruzko gure iritzi salbuespendunari.

IV.1. FINANTZA-IRITZI SALBUESPENDUNAREN OINARRIA

- Balantzearen ibilgetu materialaren kontabilitate-saldoa ez da arrazoizkoa. Ibilgetu materialak - 4,97 milioi euroko saldoa dauka 2024ko ekitaldian. Saldo negatibo hori sortu da ondare-elementuen, nagusiki, lursailen, salmenta kontabilizatzerakoan, balantzean ez alta emanda, ez erregistratuta ez zeudelako.
- 25.610 euroko gastuak egin ziren kreditu egoki eta nahikorik izan gabe, aldez aurretik ez baitziren onetsi kasuko aurrekontu-aldaketak. Gainera, aurrekontu-aldaketa horiek ez ziren argitaratu.

IV.2 LEGEZKOTASUN-BETETZEARI BURUZKO SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

- Kontzejuaren kontabilitatea Kontabilitate Bakuneko Instrukzioaren arabera da. Partida bakunaren metodoan oinarrituta dago eta 3.000 biztanletik beherako toki entitateetan da aplikatzekoa. Hala eta guztiz ere, Artikako Kontzejuak, bere populazio-maila dela-eta, Kontabilitate Instrukzio Orokorra aplikatu beharra dauka.

Munta txikiko kontratu gisa izan dira oker tramitatuak segidako zerbitzu-emateak, 2024an 28.678 euroko gastua eragin dutenak, bi kontratu-hartzaileri ordainduak. Horiek, baina, beren balio zenbatetsiari zegokion prozeduraren bidez lizitatuak izan beharko ziratekeen. 2. kapituluko gastuaren guztizkoaren ehuneko 10 egiten dute, eta honako zerbitzu eta hornidura hauei dagokie:

Prestazioaren deskribapena	2024ko gastua
Garbiketa-zerbitzuak	14.427
Kudeaketa eta administrazio-aholkularitza	14.251
Guztira	28.678

V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanguratsuak izan direnak aztertutako aldiko Kontu Orokorrari egin diogun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu kontu orokorra osoki aintzat hartuta egin dugun auditoretzaren testuinguruan eta kontu horri buruzko gure iritzia lantzean, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Txosten honetako “Finantza-auditoretzako salbuespendun iritziaren oinarria” atalean eta “Legedi-betetzeari buruzko salbuespendun iritziaren oinarria” atalean azaldutako gaiak salbu, ez dugu gure fiskalizazioan giltzarritzat jotako inongo gairen berri ematen.

VI. ARTIKAKO KONTZEJUAREN ERANTZUKIZUNA

Udaleko idazkaritza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non leialki irudikatuko baititu entitatearen aurrekontu-likidazioa, ondarea, finantza-egoera eta emaitzak, entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informazio publikoaren arloko araudia beterik.

Kontzejuko gobernu- eta administrazio-organismoek bermatu behar dute, halaber, aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatu beharreko araudiarekin.

Kontzejuaren erantzukizuna da, gainera, beharrezkotzat jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatu ahal izateko Kontu Orokorrean ez dagoela iruzurraren edo errorearen ondoriozko oker materialik eta egindako jardueran ez dagoela lege-urratzerik.

VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: kontu orokorraren osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, erregulartasunari buruzko fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik errore material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Okerrak iruzurraren edo akatsen ondoriozkoak izaten ahal dira, bai eta legezkotasun-urraketen ondoriozkoak ere, eta materializat hartzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, eta, betiere, arrazoiz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eragina izanzen dutela.

Kanpoko kontrol-organoei buruzko araudiari jarraitzen dion fiskalizazio baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan. Halaber:

- Kontu orokorrean iruzur edo errorearen ondoriozko oker materialak egoteko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzeko ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzari oinarria emateko. Iruzurrak eragindako oker materiala ez detektatzeko arriskua handiagoa da akats baten ondoriozko oker materialerako batekin alderatuta; izan ere, iruzurrak barne har dezake kolusioa, faltsutzea, nahita egindako omisioak, okerrak direla jakinik egindako adierazpenak, edo barne-kontrola saihestea.
- Barne-kontrolari buruzko ezagutza, fiskalizaziorako adierazgarria, lortzen dugu, xede hartuta inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzea, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia ematea.
- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak zentzuzkoak diren, eta ea egokia den kudeaketa-organismoak emandako informazioa.

- Kontu orokorraren aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, aditzera emandako informazioa barne, eta ea transakzioen eta haien azpiko egitateen irudi leiala erakustea lortzen den.
- Entitatearen gobernu-organoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste auditoretza-proba planifikatuen norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere. Entitateko gobernu-organoari jakinarazi zaizkion zertzeladen artean, zehazten dugu zein izan diren kontu orokorraren fiskalizazioan garrantzi handienekoak eta, horrenbestez, auditoretzako funtsezko gaiak.

VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

2024ko ekitaldiaren fiskalizaziotik eratorritako *gomendio* hauek azpimarratzen ditugu:

- *Kontabilitate Instrukzio Orokorra aplikatzea.*
- *Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua eta kontu orokorra lege ezarritako epean onestea.*
- *Aurrekontu-aldaketak izapidetu, onetsi eta argitaratzea gastua egin baino lehen.*
- *Diruzaintzako funtsak erabiltzerakoan baterako sinadura erabiltzea; gutxienez ere, diruzainak eta kontzejuburuak ala kontzejukide batek sinatu beharko lukete batera.*
- *Ekitaldi bakoitzaren itxieran, inbentarioa gaurkotzea, eta hura erkatzea ibilgetuko kontabilizatatutako datuekin. Ibilgetuaren saldo negatiboa, balantzean jasotakoa, erregularizatzea.*
- *Prozedura egokiaren bidez lizitatu eta esleitzea munta txikiko kontratuentzako araubide berezia erabiltzea ahalbidetzen duten mugak baino gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratu guztiak.*

Era berean, txosten honen 4. gehigarrian jaso ditugu 2024ko ekitaldiko finantza- eta legezkotasun-fiskalizazioaren ohar eta aurkikuntzei buruzko beste gomendio batzuk.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondotik.

Iruñean, 2026ko ekainaren 2an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. KONTZEJUAREN 2024KO EKITALDIKO KONTU OROKORRAREN LABURPENA

2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria

Gastu-aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Gastuak	Hasierako kreditua	Aldea	Behin betiko kreditua	ABG	Ordainketak	Betetakoa (%)	Ordainketak (%)
1. Langile-gastuak	56.950	0	56.950	38.437	35.225	67	92
2. Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	467.600	30.640	498.240	286.088	261.740	57	91
3. Gastu finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0
4. Transferentzia arruntak	42.350	8.100	50.450	35.858	35.858	71	100
5. Kontingentzia eta bestelako ezusteetarako funtsa	0	0	0	0	0	0	0
6. Inbertsio errealak	152.300	6.500	158.800	40.366	37.969	25	94
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0
8. Aktibo finantzarioak	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	719.200	45.240	764.440	400.749	370.792	52	93

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarrerak	Hasierako aurreikuspena	Aldea	Behin betiko aurreikuspena	Onartutako eskubide garbiak (OEG)	Kobrantzak	Betetakoa (%)	Kobrantzak (%)
1. Zuzeneko zergak	0	0	0	0	0	0	0
2. Zeharkako zergak	0	0	0	0	0	0	0
3. Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	58.200	0	58.200	54.969	54.969	94	100
4. Transferentzia arruntak	540.000	0	540.000	515.644	515.644	95	100
5. Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	148.700	0	148.700	147.019	147.019	99	100
6. Inbertsio errealen besterentzea	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	14.500	0	14.500	17.035	17.035	117	100
8. Aktibo finantzarioak	0	45.240	45.240	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	761.400	45.240	806.640	734.667	734.667	91	100

2024ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza

Kontzeptua	2023*	2024
+Onartutako eskubide garbiak	1.049.652	734.667
-Onartutako betebeharrak garbiak	493.866	400.749
= Aurrekontu-emaiza	555.786	333.918
Doikuntzak		
-Finantza-erabileraren desbideratze positiboa	0	0
+Finantza-erabileraren desbideratze negatiboa	0	0
+Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	88.713	9.092
+Merkataritza-eragiketen emaitza	0	0
=Aurrekontu-emaiza doituak	644.499	343.010

*Auditatu gabeko ekitaldia

2024ko diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2023*	2024	Aldakuntza (%)
+Kobratzeko dauden eskubideak	43.256	15.612	-64
+Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	37.443	0	
+Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	4.628	24.324	
+Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	5.813	5.764	
-Bilketa zaileko eskubideak	4.628	14.476	
-Ordaintzeko dauden betebeharrak	39.792	55.701	40
-Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	14.834	29.958	
-Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	6.338	6.863	
-Aurrekontuz kanpoko gastuak	18.619	18.879	
+Diruzaintzako funts likidoak	4.498.644	4.867.027	8
+Finantza-erabileraren desbideratze metatu negatiboak	0	0	0
=Diruzaintza-gerakina, guztira	4.502.109	4.826.938	7
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa lotuko gastuengatikoa	0	0	0
Diruzaintza-gerakina, baliabide lotuak direla-eta	0	0	0
Diruzaintza-gerakina gastu orokorretarako	4.502.109	4.826.938 ¹	7

*Auditatu gabeko ekitaldia

¹FKArri igorritako informazioan gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin gisa ageri da; hala ere, 2,6 milioi gutxienez 2022an eta 2023an eginiko lur-salmentari dagozkio eta, hori dela-eta, baliabide lotuengatik diruzaintza-gerakin gisa sailkatu beharko lirateke.

Egoera-balantzea, 2024ko abenduaren 31koa

Deskribapena	2023*	2024
A Ibilgetua	-304.640	-265.715
1 Ibilgetu materiala	-5.007.953	-4.971.901
2 Ibilgetu ez-materiala	17.802	17.802
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	3.166.213	3.169.087
4 Herri-ondasunak	269.297	269.297
5 Ibilgetu finantzarioa	1.250.000	1.250.000
6 Lagapen edo adskripzio bidez jasotako ondasun eta eskubideak	0	0
B Zirkulatzaila	4.546.529	4.897.115
7 Itxitako aurrekontuetako zordunak eta aurrekontuz kanpokoak	10.441	30.088
8 Aurrekontuko zordunak	37.443	0
9 Kontu finantzarioak	4.498.644	4.867.027
Aktiboa, guztira	4.241.889	4.631.400

*Auditatu gabeko ekitaldia

Deskribapena	2023*	2024
A Funts berekiak	4.202.097	4.575.700
1 Ondarea eta erreserbak	3.964.615	4.218.452
2 Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
3 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	237.482	357.248
B Epe luzeko zorrak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak eta jasotako gordailuak	0	0
C Epe laburreko zorrak	39.792	55.701
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuz kanpokoak	24.958	25.743
6 Aurrekontuko hartzekodunak	14.834	29.958
Pasiboa, guztira	4.241.889	4.631.400

*Auditatu gabeko ekitaldia

2024ko ekitaldiko aurrekontu-emaiza**Zorra**

Zorra - Azalpena		2023*	2024
61	Langile-gastuak	59.706	38.437
62	Gastu finantzarioak	0	0
64	Kanpoko lan, hornidura eta zerbitzuak	270.539	286.088
67	Transferentzia arruntak	32.694	35.858
68	Kapital-transferentziak	0	0
69	Kalkulatutako gastuak	0	0
D80	Ekitaldiko emaitza arrunt negatiboa	0	0
D82	Salmenten eta inbertsioen ataleko galerak eta aparteko beste galera batzuk	0	0
D83	Aktibo finantzarioen salmentengatiko galerak	0	0
D84	Bajak eta itxitako aurrekontuen deuseztapenak	726	0
D89	Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	0	0

*Auditatu gabeko ekitaldia

Hartzekoa

Hartzekoa - Azalpena		2023*	2024
70	Salmentak	67.730	54.969
71	Jabetza- eta enpresa-errenta	27.338	147.019
72	Produktzioari eta inportazioari lotutako tributuak	0	0
73	Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	0	0
76	Transferentzia arruntak	505.882	515.644
77	Kapitalaren gaineko zergak	0	0
78	Beste diru-sarrera batzuk	0	0
H80	Ekitaldiko emaitza arrunta	238.011	357.248
H82	Inbertsioen salmentako irabaziak	0	0
H83	Finantza-aktiboen salmentaren irabaziak	0	0
H84	Altak eta preskripzioak, itxitako aurrekontuak	197	0
H89	Ekitaldiko emaitza ekonomiko positiboa	237.482	357.248

*Auditatu gabeko ekitaldia

2. GEHIGARRIA. ARTIKAKO KONTZEJUA

2.1 INFORMAZIO OROKORRA

Artika Iruñeko Merindadean dago, eta Berriobeitiko Udala osatzen duten hamar kontzejuetako bat da. 2024ko urtarrilaren batean kontzejuak 4.908 biztanle zituen, udalerrri osoko biztanleriaren ehuneko 65, 2010eko hamarkadan hazkunde nabarmena izan ondotik. 1,76 km²-ko azalera du.

Kontzejuaren gobernu eta administrazioa lehendakari batez eta beste sei kidez osatutako batzar baten esku daude.

2024ko ekitaldia ixtean, honako hauek ziren Kontzejuaren datu ekonomiko eta langileria-arloko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langile kopurua 2024/12/31n
Kontzejua	734.667	400.749	2
Guztira	734.667	400.749	

2.2 EGINDAKO JARDUERAK

Honako hauek dira Kontzejuak ematen dituen zerbitzuak eta zerbitzu horiek emateko modua:

Zerbitzua	Zuzeneko kudeaketa	Zerbitzu-kontratua	Udala
Argiteria publikoa		x	
Hilerria	x		
Bide-garbiketa			x
Kontzejuaren artxiboa	x		
Herri-bideen mantentze-lanak	x		
Gizarte-zentroaren kudeaketa	x		
Frontoiaren eta kirol-pistaren kudeaketa	x		

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Artikako Kontzejuari 2024ko ekitaldian zehar aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

Estatuko araudia

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, Merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa, eta hura garatzeko araudia.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, Estatuko 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa, 2024ra luzatua (sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileen gastuen arloan aplikatu beharreko xedapenak).

Foru araudia eta tokikoa

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak honako hauek dira: 270. eta 272. foru dekretuak, 1998ko irailaren 21ekoak, zeinak Nafarroako Toki Administrazio-orako aurrekontu eta gastu publikoari eta kontabilitateari buruzkoak baitira, eta irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretua, Nafarroako toki entitateen aurrekontu-egitura onesten duena.
- Kontzejuaren 2024ko aurrekontua betetzeko oinarriak.
- Ordenantzak.

4. GEHIGARRIA. ERREGULARTASUNARI BURUZKO FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Ondoren adierazten ditugu oharrak eta aurkikuntzak, bai eta Ganbera honen iritziz fiskalizazio-txosten honen hartzaileentzat eta erabiltzaileentzat interesekoa izaten ahal den zenbait informazio gehigarri ere.

Halaber, txostenak jasotzen ditu Ganbera honen ustez kontzejuaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

4.1 AURREKONTU OROKORRA ETA FINANTZEN EGOERA

2024ko urtarrilaren 18an, Kontzejuko Batzarrak 2024rako aurrekontu orokorra onetsi zuen eta behin betiko onespena urtebete geroago argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2025eko otsailaren 24an, hasierako gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak 719.000 eta 761.400 eurokoak zirelarik, hurrenez hurren.

Aurrekontuaren espedientea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa (NFKA) igorri zen 2024ko irailaren 5ean, araudian ezarritako 15 eguneko epetik kanpo.

Kontu orokorra

Ez da inon agertzen aurrekontu-likidazioaren onespunik, eta kontu orokorra, berriz, Udalak 2025eko abenduaren 4an egindako osoko bilkuran onetsi zen, lege ezarritako epea, hurrengo ekitaldiko irailaren 1ekoa, errespetatu gabe. Kontu orokorra 2025eko abenduaren 12an igorri zitzaion NFKAri.

Egindako azterketatik, honako akats hauek azpimarratzen ditugu:

- Diruzaintza: lehendakariak bere kasa erabil ditzake finantza-entitatearen funtsak 6.000 eurora arte.
- Itxitako aurrekontuen egoera-orriak 2001etik aurrerako gastuak eta 2004tik aurrerako diru-sarrerak jasotzen ditu, hurrenez hurren. Zehazki, kontabilizatutako zenbatekoetatik, gastuetako 5.610 euro eta diru-sarreretakako 4.628 euro 2014 baino lehenagoko ekitaldiei dagozkie.

Gure fiskalizazio lanaren ondorioz, txosten honetako “Gomendio garrantzitsuenak” atalean gai-ari buruz adierazitakoaz gain, honako hau gomendatzen dugu: *itxitako ekitaldietako saldoak aztertzea eta garbitzea*.

Aurrekontuaren likidazioa

Kontzejuaren 2024ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa eta aurreko ekitaldiarekiko alderaketa honako hauek dira:

Adierazleak	2023	2024	Aldea (%a)
Aitortutako eskubideak, guztira	1.049.652	734.667	-30
Aitortutako betebeharrak, guztira	493.866	400.749	-19
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	600.950	717.632	19
Funtzionamendu-gastuak (1.a, 2.a eta 4.a)	362.939	360.384	-1
Kapitaleko diru-sarrerak	448.702	17.035	-96
Kapitaleko gastuak	130.927	40.366	-69
Saldo ez-finantzarioa	555.786	333.918	-40

Aurreko datu horiek kontuan hartuz, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2024an, aitortutako eskubideak 734.667 eurokoak izan ziren; horietatik ehuneko 70 transferentzia arruntei dagozkie, ehuneko 20 ondare bidezko diru-sarrerei, ehuneko zazpi tasei, prezio publikoari eta bestelako diru-sarrerei eta ehuneko bi kapital-transferentziei.
- 2024ko eskubide aitortuak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 30 txikiagoak izan ziren. Nabarmentzekoa da lurzati-salmentagatiko diru-sarreraren jaitsiera (416.000 euro gutxiago) eta gordailuen interesengatiko sarreraren igoera (120.000 euro gehiago).
- 2024ko gastuek 400.749 euro egin zuten gora; horietatik, ehuneko 71 ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntei dagokie, ehuneko 10 inbertsio errealei, beste ehuneko 10 langileria-gastuei eta gainerako ehuneko bederatzi transferentzia arruntei.
- 2024an aitortutako betebeharrak aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 19 txikiagoak izan ziren. Nabarmentzekoak dira inbertsioetan 90.561 euro gutxiago gastatu izana eta langileria-gastuek 21.269 egin dutela behera.

Taula honetan jaso dira Kontzejuaren gastuen xedea eta finantzaketa, ehunekotan, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

Gastuaren izaera	2023%	2024%	Finantzaketa-iturria	2023%	2024%
Langileak	12	10	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	6	7
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	55	71	Transferentziak	51	73
Transferentziengatiko gastuak	7	9	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelako diru-sarrerak	3	20
Inbertsio errealak	27	10	Inbertsioen besterentzea	40	-
Guztira	100	100		100	100

Finantza-egoeraren azterketa:

Jarraian, zenbait adierazleren bilakaera azalduko dugu:

Adierazleak	2023	2024	Aldea (%a)
Aurrezki gordina/garbia	238.010	357.248	50
Aurrezki gordina/diru-sarrera arruntak	% 40	% 50	26
Zor bizia	-	-	-
Aurrekontu-emaizta doitua	644.499	343.010	-47
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	4.502.109	4.826.938	7
Autonomia fiskala (tributuak/aitortutako eskubide garbiak)	% 5	% 6	18
Kobratzea zalantzazkoa den zordunen indizea (kobratzea zalantzazkoa den zordunen saldoa/kobratzeko dauden zordunak)	% 11	% 60	441

Aurreko datuen analisitik abiatuta, honako zertzelada hauek aipatu behar ditugu:

- Aurrezki gordina eta garbia 357.248 eurokoa izan zen, aurreko ekitaldian baino ehuneko 50 gehiago. Gorakada hori zor zaio diru-sarrera arrunten igoerari eta funtzionamendu-gastuen eusteari.
- Diru-sarrera arrunten gaineko aurrezki gordina ehuneko 26 hobetu zen, eta 2024an diru-sarrera arrunten ia erdia aurrezki bihurtu zen.
- Aurrekontu-emaizta doitua ehuneko 47 murriztu zen, nagusiki auditatutako ekitaldian ez zelako lurzatarik saldu.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak ehuneko zazpi egin zuen gora eta zenbateko oso garantzitsua egin zuen, 4,83 milioi euro.

- Kobrantza zalantzarikoko zordunen indizeak ehuneko 441 egin zuen gora, biltzeko zailak diren saldoen eta kobratzeke dauden zordun kopuruaren jaitsieraren eraginez.

Horiek horrela, 2024an egoera finantzarioa oso onbideratuta zegoen, eta hala ondorioztatzen da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinetik, 4,83 milioi eurokoa baita.

Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna

2020, 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldietan zehar bertan behera utzi ziren Espainiako arau fiskalak, Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, ezen hark erabaki baitzuen Egonkortasun eta Hazkunderako Ituneko babes-klausula orokorra aplikatzea, hasieran COVID-19aren ondoriozko pandemiak eta ostean Ukrainako gerrak eragindako efektuak samurtze aldera. Diputatuen Kongresuaren Osoko Bilkurak jo zuen salbuespenezko inguruabarrak betetzen zirela, eta baliozkotu egin zuen aurrekontu-egonkortasuneko, zor publikoko eta gastu-erregelako helburuak etetea.

Europako Batzordeak Kontseiluari 2023ko martxoaren 8an igorritako komunikazioaren bitartez ezarri zenez, 2023aren amaieratik aurrera babes-klausula orokorra erretiratu eginen zen; horrenbestez, erregela fiskalak 2024an berraktibatuta geratu ziren.

Senatuak ez zuen onetsi egonkortasun-helburuen proposamena, aurkeztuak izan ziren bi okasioetan. Hori horrela, 2024rako indarrean dauden helburuak dira Gobernuak Europako Batzordeari 2023ko apirilean igorritako Egonkortasun Programan jasotzen direnak. Programa horrek BPGaren ehuneko 0,2ko egonkortasun-helburua ezartzen zuen toki-korporazioentzat.

Gastu-erregelari dagokionez, gastu konputagarriarentzat ehuneko 2,6ko gehieneko hazkundeko helburua ezarri zen.

Aurrekontu-egonkortasunari, gastu-erregelari eta zor komertzialaren jasangarritasunari dagozkien helburuen betetzeaz honako hau azpimarratzen dugu:

- Aurrekontu-egonkortasuneko helburua bete egin zen; izan ere, udaleko toki-sektore publikoak 333.918 euroko defizit bat zeukan 2024ko abenduaren 31n.
- Gastu-erregelari dagokionez, 2024ko gastu kontagarria 334.120 eurokoa izan zen, 2023ko ekitaldikoa baino 67.713 euro gutxiago; horrenbestez, baimendutako muga betetzen da.
- Merkataritza-zorren jasangarritasunari dagokionez, Kontzejuak ez du argitaratu eta ez du jakinarazi ea hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak gainditu ote duen berankortasunari buruzko araudian ezarritako 30 eguneko gehieneko epea.

Gure fiskalizazio lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu: *hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea araudian xedatutakoaren arabera kalkulatzea eta argitaratzea.*

4.2. LANGILERIA-GASTUAK

2024ko ekitaldian, Kontzejuaren langileria-gastuak 38.437 izan ziren. Haien exekuzio-maila behin betiko kredituen ehuneko 67 izan zen.

2023. eta 2024. urteetan aitorturiko betebeharrak honako hauek izan ziren, kontzeptu ekonomikoak:

Kontzeptua	Deskribapena	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea % Ald.	
100	Gobernu-organoetako kideen oinarritzko ordainsariak eta beste ordainsari batzuk	5.640	-	-5.640	-100
131	Aldi baterako langileak	37.757	24.290	-13.467	-36
160	Gizarte-kuotak	16.310	14.147	-2.163	-13
1. kapitulua, guztira		59.706	38.437	-21.269	-36

Ehuneko 63 langile lan-kontratudunen ordainsariei dagokie; eta ehuneko 37, gizarte-kuotei.

Langileria-gastuak ehuneko 36 murriztu ziren aurreko ekitaldikoan aldean. Murrizketa horren arrazoia langile baten baja izan zen (14.779 euro), horrek gastu txikiagoa eragin baitzion Kontzejuari 2024an.

Plantilla organikoa

Kontzejuaren Batzarrak hasierako onespena eman zion, 2024ko urtarrilaren 18an, 2024ko plantilla organikoari, eta haren behin betiko onespena 2024ko ekainaren 24ko NAOan argitaratu zen.

2024ko plantilla organikoak bi lanpostu jasotzen ditu: administrari-ofizial postu bat eta garbitzaile postu bat, azken hori ehuneko 41,25eko lanaldi partzialarekin. Bi postu horiek langile lan-kontratadun finkoek betetzen dituzte.

Langileria-gastuaren egiaztapenak

Nominak kanpoko lan-arloko aholkularitza-etxe batek egiten ditu. Gero, Udalari bidaltzen dizkio artxiboak, kontabiliza eta ordain ditzan.

Plantilla organikoan jasotako lau lanpostuetako langileei ordaindutako ordainsari-kontzeptuak aztertu ditugu eta, egiaztatu dugunez, zegoen informazioa kontuan hartuta, ezinezkoa zen konklusio eztabaidaekin zehaztea garbiketako langileari aplikagarri zitzaion lansari-erregimenari buruz; izan ere, lan-kontratuan ez da zehazten aplikagarri zaion hitzarmena eta inkoherentziak antzeman dira kontratuan aurreikusitakoaren eta plantilla organikoan jasotako informazioaren artean.

Aldi baterako kontratazioa

2024an administrazio-langile baten² aldi baterako kontratazioa hasi zen, publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabeko prozedura bati jarraikiz.

2025eko ekainaren 4an kontratazio-prozedura horren epaimahaian parte hartzeagatiko dieten kontzeptuan eginiko ordainketak onetsi ziren lau zinegotziren alde, 735 euroko zenbatekoarekin. Alabaina, Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabe deklaratu zituen ordainketa horiek.

² Kontratua 2025eko otsailaren 17an sinatu zen.

Hona gure fiskalizazio-lanaren ondorioz egiten ditugun gomendioak:

- *Garbiketako langilearen kontratua erregularizatzea eta lansari-erregimena zehaztea.*
- *Plantilla organikoa egiazki jasotako ordainsarietara egokitzea.*

4.3. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak 286.088 euro izan ziren, ekitaldian onartutako bete-behar guztien ehuneko 71, eta behin betiko kredituen ehuneko 57 gauzatu ziren.

Honako aurrekontu-aplikazio hauei dagozkien ondasun eta zerbitzuetako gastuen guztizkoaren ehuneko 82 aztertu dugu:

Aurrekontu-aplikazioa	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea 2024/2023 ald. (%)
Herriko jaiak eta bestelako festak	90.758	100.822	10.065
Argiteria publikoa	57.470	45.232	-12.238
Kultur jardueren kudeaketa	20.100	17.159	-2.941
Argiteria publikoaren mantentze-lanak	484	15.856	15.371
Administrazio kudeaketa	-	14.251	14.251
Kultur jarduerak (Inauteriak/Gabonak)	14.045	12.388	-1.657
Zentro zibikoaren mantentze-lanak	11.329	11.230	-99
Kontzejuaren aseguruak	5.745	6.175	430
Komunikazio digitaleko lanak	4.428	5.650	1.222
Kontzejukideen km-engatiko dietak	6.300	5.283	-1.017
Kontabilitate-aholkularitza	-	794	794
Biltegiaren alokairua	-	623	623

Gutzizko gastua ehuneko sei igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera esanguratsuenen artean, nabarmentzekoak dira argiteria publikoaren mantentze-lanen kostuaren igoera, kale-argien oinarriak konpondu baitira, eta administrazio-kudeaketaren gastuaren igoera, administrazio-langilearen iraupen luzeko baja estaltzeko aholkularitza-zerbitzua kontratatu izanaren ondorioz. Aldiz, argiteria publikoaren kontsumoaren gastua izan da gehien murriztu dena.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, gastuak kasuko fakturretan justifikatuta eta oinarrituta daudela, eta ekitaldian zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daudela. Honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Egiaztatu dugu hautetsiak osoko bilkuretarako joateagatik dietak zuzenak direla eta justifikatuta daudela.
- Kontzejuko lehendakariak eginiko gastuak behar bezala justifikatuta daude, kasuan kasuko ordainagiriaren babesarekin, eta behar bezala kontabilizatu dira. 2024ko maiatzaren 6tik aurrera eginiko 44 ordainketei dagozkie, 3.301 euroko zenbatekoarekin.
- Espedientean ez dago jasota higiezinaren (biltegia) alokairu zuzena babesten duen behar-txostenik ez bestelako agiririk. Alokairuak 4.422 euroko urteko kostua du eta artxiboan eta zentro zibikoan herriko jaietarako materiala gordetzeko toki faltari erantzuten dio.
- Kontzejuak ez zituen argitaratu Nafarroako Kontratazioaren Atarian munta txikiko araubide bereziaren bidez adjudikatutako kontratuen zerrendak, KPFLk eskatzen duenarekin kontraesanean.

Kontuan hartuta gure lanaren ondorioak, eta txosten honetako "Gomendio garrantzitsuenak" atalean jasotako aholkuez gain, honako hau gomendatzen dugu:

- *Espedientean jasota uztea araudi indardunaren arabera higiezinaren alokairua ahalbidetzen duten beharrianak eta inguruabar zehatzak.*

- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bitartezko esleipenak.*

4.4. INBERTSIOAK

Inbertsioak 40.366 eurokoak izan ziren, ekitaldian onartutako betebeharrak guztien ehuneko 10, eta behin betiko kredituen ehuneko 25 gauzatu ziren. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko 69 jaitsi dira.

Honakoak izan ziren Kontzejuak 2024an egindako inbertsio nagusiak:

Deskribapena	ABG, 2024
San Kristobal Monasterioko proiektu arkeologikoa	14.641
Mahaiak eta aulkiak, banku komuna	13.345
Suebaki-routererako armairua	2.620
Ingurumen-proiektua	2.397

Inbertsio guztiak berrikusi ditugu eta ondorioztatzen dugu ezen, oro har, gastuak kasuko fakturatan justifikatuta eta oinarrituta daudela, eta ekitaldian zuzen kontabilizatuta eta ordainduta daudela.

4.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTETAKO GASTUAK

Transferentzia arruntengatiko betebeharrak onartuek 35.858 euro egin zuten 2024ko ekitaldian, gastu osoaren ehuneko bederatzia, alegia. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko hamarreko igoera izan dute.

Transferentzia arrunten gastuak osatzen dituzten kontzeptu nagusiak honako hauek dira:

Deskribapena	ABG, 2023	ABG, 2024	Aldea	2024/2023 ald. (%)
Elkarteekiko eta konpartsarekiko hitzarmenak	6.700	12.415	5.715	85
Kirol-elkarteentzako dirulaguntzak		9.302	9.302	-
Larrialdiko giza laguntza - Valentziako DANA		5.000	5.000	-
Garapenerako lankidetzak	2.807	3.150	343	12
Osasun- eta hezkuntza-gastuak	6.733	2.203	-4.530	-67
Urteko kuota	1.439	1.454	15	1
Liburutegirako dirulaguntza	1.436	1.349	-87	-6
Korrikarako ekarpena		600	600	-

Kontzejuak badu dirulaguntzei buruzko araudi orokor bat aurrekontua exekutatzeko oinarrietan, bai eta kirol-jardueretarako dirulaguntzei buruzko ordenantza berariazko bat ere.

Sei dirulaguntza berrikusi ditugu (lau izendunak eta bi norgehiagokaren araubidekoak), sei onuradunei dagozkienak. Dirulaguntza horiek 2024an onartutako betebeharren ehuneko 62 egiten dute.

Finantzaketa	Onuraduna	Prozedura	Zenbatekoa
Elkarteekiko hitzarmenak	Artikako Hauspoa elkarteak	Zuzena (izenduna)	5.000
Elkarteekiko hitzarmenak	Artikako konpartsa	Zuzena (izenduna)	3.615
Elkarteekiko hitzarmenak	Artikako konpartsa	Zuzena (izenduna)	3.800
Kirol-elkarteentzako dirulaguntzak	Berritxako txirrindulari-kluba	Zuzena (izenduna)	3.000
Kirol-elkarteentzako dirulaguntzak	Artikapain K.E.	Norgehiagoka	4.083
Kirol-elkarteentzako dirulaguntzak	Artikako korrikalariak	Norgehiagoka	2.219

Egin den berrikuspenetik honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

- Ez dago jasota dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak argitaratu direnik, ez Nafarroako Aldizkari Ofizialean ez Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean. Halaber, emandako dirulaguntzak ez ziren Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu.
- Dirulaguntza izendunak lankidetzat-hitzarmenen edo dirulaguntzak emateko ebazpenen bidez gauzatzen dira, baina Kontzejuaren aurrekontuan ez dira onuradunak eta kasuko diru-zuzkidurak identifikatzen, aplikagarri zaien araudian ezarritakoarekin kontraesanean.
- Entitate onuradunek, Berritxako txirrindulari-klubak izan ezik, behar bezala justifikatu dituzte eginiko gastuak.
- Ez da agertzen tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean edukitzeari buruzko ziurtagiririk.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hauek dira gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren gastuen egoeran zehaztea, gutxienez, dirulaguntza izendunen onuradunak eta aurrekontu-zuzkidura.*
- *Dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea eta emandako dirulaguntzak ere azken horretan argitaratzea.*
- *Dirulaguntzaren justifikazio dokumentazioa eskatzea oinarri arautzaileetan, hitzarmenean edota dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritakoari jarraikiz.*
- *Onuradunei exijitzea dirulaguntza eman aurretik justifikatu dezatela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela eta justifikazio hori egiaztatzea.*

4.6 TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

“Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk” izeneko kapitulu ekonomikoan aitortutako eskubideek 54.969 euro egin zuten; hau da, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 94.

Honako hauek dira kapitulu hori osatzen duten diru-sarrera nagusiak eta horien 2023arekiko aldakuntza:

Deskribapena	2023ko OEG	2024ko OEG	Aldea	Aldea (%) 2024/2023
Kultura tasak	11.849	8.446	-3.403	-29
Erabilera pribatiboagatiko tasak edo hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziagatiko tasak	31.616	26.303	-5.313	-17
Erabilera pribatiboagatiko tasak edo telekomunikazio-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aprobetxamendu bereziagatiko tasak	5.215	4.557	-657	-13
Beste tasa batzuk, jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik	8.481	8.062	-419	-5
Aseguruengatiko kalte-ordainak	-	1.299	1.299	-
Bestelako diru-sarrerak	8.275	6.267	-2.008	-24

Guztira 52.354 euroko lagin bat aztertu dugu; hau da, kapituluko eskubide aitortu guztien ehuneko 95. Egiaztatu dugu behar bezala izapidetu eta kontabilizatu direla.

4.7 TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrera aitortu garbiek 515.644 eta 17.035 euro egin zuten hurrenez hurren, eta haien multzoak diru-sarrera guztien ehuneko 73 egiten du.

Kontzeptuak	Esku-bide onartu garbiak 2023	AEG 2024	Aldea	2024/2023 ald. (%)
NFKAren transferentzia arruntak (tributuetan parte-hartzea)	446.551	466.050	19.499	4
Udalerrien transferentzia arruntak (udalaren ekarpena argiteria publikorako)	59.331	49.593	-9.737	-16
Transferentzia arruntak, guztira	505.882	515.644	9.762	2
NFKAren kapital-transferentziak	32.702	17.035	-15.667	-48
Guztira	538.584	532.679	-5.905	-1

Berribeiteko Udalak bere gain hartzen du, hitzarmen baten babesean, argiteria publikoaren mantentze-lanen eta kontsumoaren kostu osoa, bai eta kale-garbiketara eta kontzejuentzako administrazio arloko aholkularitza zerbitzua (bere langileen bitartez).

Udalak argiteria publikoaren kontsumoa finantzatzeko eginiko ekarpena berrikusi dugu (49.593 euro) eta egiaztatu dugu ez datorrela bat Kontzejuak eginiko fakturazioarekin, hitzarmenean aurreikusi gabeko kontsumoak jaso baitira, 8.603 eurokoak (zentro zibikoaren, kontzejuaren eta frontoiaren kontsumo elektrikoa) eta ez baita aipatzen argiteria publikoari dagokion 5.390 euroko fakturazioa.

Jasotako kapital-transferentzia nagusiak honako hauek izan ziren:

Kontzeptua	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea	2024/2023 ald. (%)
Nafarroako Gobernuaren determinazio libreko funtsa	13.006	13.219	213	2
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza proiektu arkeologikorako	-	3.816	3.816	-
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza energia berriztagarri termikoetarako	19.696		-19.696	-100

Udalaren informazio kontabilizatua NFKAk duenarekin bat datorrela egiaztatu dugu.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, gomendatzen dugu kasuko hitzarmenean aurreikusitako argiteria publikoari buruzko gastuak soilik fakturatzea Udalari.

4.8. ONDARE BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Ondare bidezko diru-sarrerak 147.019 eurokoak izan ziren, udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 20, alegia.

Hurrengo taulan, kapitulu honetako diru-sarreraren aurrekontu-aplikazio nagusiak jaso ditugu:

Kontzeptua	AEG, 2023	AEG, 2024	Aldea	2024/2023 ald. (%)
Gordailuen interesak	-	120.100	120.100	-
Merkataritzako lokalaren alokairua	5.209	5.279	69	1
Pisuen alokairua	14.329	14.817	488	3
Instalazio fotovoltaikoaren energia	7.799	6.824	-975	-13
Guztira	27.338	147.019	119.681	438

Ondare bidezko diru-sarrerak ehuneko 438 igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Igoera horren arrazoia da 2024an eratutako epe finkoko banku-gordailu baten interesak kobratu izana (lau milioi).

Jasotako diru-sarrera guztiak aztertu ditugu eta egiaztatu dugu behar bezala izapidetu, kudeatu eta kontabilizatu direla.

